

Lizarrako Antzinako Musikaren 51. Astea

2020ko irailaren 5etik 12ra

Edertasun
txinpartak



Aurkibidea

Aurkezpena	5
Begiratu batean	7
Abonamenduak eta sarrerak	11
Programa	13
IRAILAK 5	
18:00 Iruñeko Katedraleko kanpai-jotzaileak	14
18:30etik aurrera Ministriles Hispalensis	15
18:30etik aurrera Club Academia da Espada-Coruña	18
20:00 Núria Rial & Accademia del Piacere	20
IRAILAK 6	
11:00 Ministriles Hispalensis	23
17:30 Ensemble Musicantes & Tantatachán Teatro	26
20:00 Artefactum	29
IRAILAK 7	
17:30 Dolce Rima	32
20:00 Cantoría	35
IRAILAK 8	
12:00 Cantoría	38
17:30 Tasto Solo	39
20:00 Amandine Beyer & Vadym Makarenko	42
IRAILAK 9	
13:00 Èlia Casanova & Alfred Fernández	44
17:30 Èlia Casanova & Alfred Fernández	47
20:00 Vox Hvmana	49
IRAILAK 10	
17:30 Las Arpas Sonoras	53
20:00 Lina Tur Bonet & MUSICA ALcheMICA	56
IRAILAK 11	
18:00 Manuel Horno & L'Apothéose	59
20:00 L'Apothéose	61
IRAILAK 12	
17:30 Secretvm	63
20:00 Nafarroako Orkestra Sinfonikoa	66

Aurkezpena



Petaloak kendu arren, loreak ederra izaten jarraituko du

RABINDRANATH TAGORE

GURE BIZITZETAKO urte bitxien moduan —edo bitxienetako bat gisa— gogoratuko dugu 2020a. Gutako askok senitartekoak edo lagunak galdu ditugu hain gogor astindu gaituen distopia honetan. Alarma-egoeran jakinarazi zidaten SMAD Eren zuzendari berria nintzela, txikitatik hainbeste maitate, errespetatu eta miresten dudana jaialdi honena. Eta berez merezi duen arretaz eta maitasunez prestatu behar zen hitzordua, batetik, eta ikus-entzuleen eta artisten segurtasun handiena bermatuta, bestetik, eta bai Nafarroako Gobernuak eta bai Lizarrako Udalak ere dena eman zuten hori guztia hala gauzatzeko.

Leonardo da Vincik esaten zuen edertasuna hilezkorra dela artean. Baina era berean da hilezkorra arteak adierazten duen guztia, bera baita gure memoria kolektiboa gordetzen duena. Antzinako partiturek kontatzen digute nola bizi ziren gure arbasoak eta zer sinesten zuten, eta erakusten digute haiekin begi hutsez irudi lezakeena

baino askoz ere gehiago dugula komunean. Hori dela-eta, haiek utzi ziguten edertasun hilezkor horren dirdirek haiek nor ziren esaten digute, baina baita nor garen gu ere. Ondare immaterial hori ezinbestekoa da gure historia ulertzeko eta bere testuingurua argitzen duen soinu-banda da, bizirik eutsita eta egungo publikoei gure arbasoei interpelatu zien indar berbarekin interpelatuta.

Uste oso horretatik abiatuta, aste hau itxaropen- eta edertasun-hazi moduan kontzebitzeko asmoa sortu zen, errealitate kaotiko baten erdian edertasuna indartzea bultzatuko duen gune moduan. Pertsonok zoritxarra gainditzea lortzen du arteak, eta bereziki musikak, gure adoreari bihotz eman eta gure espiritua baretzen baitu. Ideia hori abiaburu hartuta, programazio hau eratuko duten artistei eskatu nien Lizarrara etortzeko beren errepertorio inspiratzaileenekin, Aste argia, maitasunezkoa eta beroa moldatzeko; lasaitu ahal izango gaituen edertasun-oasia.

Hala joan gara edizio honetako hogeita bat jarduerak taxutzen, ospetsu bihurtuta dauken artistekin eta etorkizun oparoa izango dutenekin; ezpatariekin, harpekin, turutekin, herensugeekin eta printzesekin; amodio- eta desamodio-istorioekin, biolinak irudikatzen dituzten txoriekin. Haizeari aurre egiten dioten kanpaiak, denboran zeharko bidaia batean, geldialdiak Erdi Aroan, Errenazimenduan eta barrokoan eginez. Orduan bezala, arteak gizateriaren gaitzen kontrako erremedio onena izaten jarraitzen du. Lagun egiguzue eta erakutsiko dizuegu.

—Raquel Andueza
Zuzendari artistikoa





Begiratu batean



Begiratu batean

Irailak 5



18:00
Kalean bertan
IRUÑEKO
KATEDRALEKO
KANPAI-JOTZAILEAK
Lizarrako kanpaiak

18:30etik aurrera
Kalean bertan
Los Llanos kulturguneko
lorategiak
MINISTRILES
HISPALENSIS
Francisco Blay,
zuzendaritza
Errénazimenduko kalejina

18:30etik aurrera
Kalean bertan
Los Llanos kulturguneko
lorategiak
CLUB ACADEMIA
DA ESPADA-CORUÑA
*Antzinarako erpaten
erakustaldia*

20:00
San Migel eliza
NÚRIA RIAL
& ACCADEMIA
DEL PIACERE
Fahmi Alqhai,
zuzendaritza
Muera Cupido

Irailak 6



11:00
Santa Klara komentua
MINISTRILES
HISPALENSIS
Francisco Blay,
zuzendaritza
*Musika txikia:
La rubia pastorcica*

17:30
Santa Klara komentua
ENSEMBLE
MUSICANTES
& TANTATACHÁN
TEATRO
*Musika txikia: Las
aventuras de Martín*

20:00
San Migel eliza
ARTEFACTUM
Álvaro Garrido,
zuzendaritza
In vino veritas

Irailak 7



17:30
Santa Klara komentua
DOLCE RIMA
Dolce tormento

20:00
San Migel eliza
CANTORÍA
Jorge Losana, zuzendaritza
Lenguas malas

Irailak 8



12:00
San Jerónimo egoitza
CANTORÍA
SMADE Soziala

17:30
Santa Klara komentua
TASTO SOLO
Guillermo Pérez,
zuzendaritza
La flor en Paradís

20:00
San Migel eliza
AMANDINE BEYER &
VADYM MAKARENKO
Le rappel des oiseaux

Irailak 9



13:00
Julián Romano musika
eskolako auditoriuma
ÈLIA CASANOVA
& ALFRED
FERNÁNDEZ
SMADE Soziala

17:30
Santa Klara komentua
ÈLIA CASANOVA
& ALFRED
FERNÁNDEZ
Quién te traxo el caballero

20:00
San Migel eliza
VOX HVMANA
Juan Corcuera,
zuzendaritza
Hermosas alamedas

Irailak 10



17:30
Santa Klara komentua
LAS ARPAS
SONOROSAS
Tañendo con voz sonora

20:00
San Migel eliza
LINA TUR BONET &
MUSICA ALCHEMICA
La belleza

Irailak 11



18:00
Julián Romano musika
eskolako auditoriuma
MANUEL HORNO
& LAPOTHÉOSE
*Elkarrizketan jardundako
preludioak*

20:00
San Migel eliza
L'APOTHÉOSE
A tribute to tears

Irailak 12



17:30
Santa Klara komentua
SECRETVM
Sergio Barcellona,
zuzendaritza
Col bel chiaro de sta luna

20:00
Los Llanos kulturguneko
lorategiak
NAFARROAKO
ORKESTRA
SINFONIKOA
Yorrick Troman,
concertino zuzendaria
Armonico tributo

Abonamenduak eta sarrerak



Abonamenduak eta sarrerak



Abonamenduaren prezioa 90€ / 45€ gazte txartela

Sarreraren prezioak

- 17:30eko kontzertuak 8€ / 4€ gazte txartela
- 20:15eko kontzertuak 12€ / 6€ gazte txartela
- SMADE Soziala Adinekoen egoitzetako eta AMIFE elkarteko erabiltzaileei murriztua
- Musika txikia Gonbidapenarekin, leku-kopurua bete arte
- Elkarrizketan Gonbidapenarekin, leku-kopurua bete arte
- jardundako preludioak
- Kalean bertan Gonbidapenarekin, leku-kopurua bete arte

Online salmenta Webgune honetan: www.baluararte.com
Gomendatua, COVID-19aren ondoriozko higie-
eta distantzia-neurriak aintzat hartuta

Aurrez aurreko salmenta **BALUARTEN**
Txarteldegia: astelehenetik larunbatera,
11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

KONTZERTUEN EGOITZETAN
Kontzertuaren egunean, ordu bat lehenagotik
Gomendatua txartel bidez ordaintzea, COVID-19aren
ondoriozko higie- eta distantzia-neurriak aintzat hartuta

Gonbidapenak Kontzertuaren egunean jaso behar dira, ordu bat lehenagotik

Edukierak Los Llanos kulturguneko lorategiak: 140
San Migel eliza: 78
Santa Klara komentua: 63
Musika Eskolako auditoriuma: 49

Programa




Iruñeko Katedraleko kanpai-jotzaileak



Lizarrako kanpaiak

Irailak 5 — 18:00
Kalean bertan



© CETE Tierra Estella

Kanpai-jotze orokorra, jaialdia inauguratzeko. Lizarrako eliza guztietako kanpaiak joko dira, Astea hasiko dela ospatzeko, eta hiria beren soinu atseginez beteko dute.

Ministriles Hispalensis



Errenazimenduko kalejira

Irailak 5 — 18:30etik aurrera
LOS LLANOS KULTURGUNEKO
LORATEGIAK
Kalean bertan

Francisco Blay, zuzendaritza

Álvaro Garrido, perkusioa
Jorge Enrique García, kontratenorra eta txirula ezti
Jacobo Díaz, txirimia
Carmelo Sosa, sakebut altua eta tenorra
Francisco Blay, sakebut tenorra eta baxua

Errenazimenduko kalejira Lizarrako kaleetan. Txikiek eta handiek XVI. mendeko dantzez eta abestiez gozatzeko aukera izango dute, ministrilen talde enblematiko eta berezi honek jota.

PROGRAMA

Propignan El Melyor
Izengabea (Cancionero de la Colombina, XV. m.)

Bransle el official
Thoinot Arbeau (1520 - 1595)

Si d'amor pena sentis
Izengabea (Cancionero de Palacio, XV. m.)

Bransle de chevaux
Thoinot Arbeau (1520 - 1595)

Pavana de la guerra
Claude Gervaise (1525 - 1583)

Fata-la-parte
Juan de la Encina (1468 - 1529)

Vieja alemanda
Claude Gervaise (1525 - 1583)

Alemanda
Tylman Susato (ca.1510 - 1570)

Gallarde guerra
Claude Gervaise (1525 - 1583)

Jouyissance vous donnerai
Thoinot Arbeau (1520 - 1595)

Bransle gay
Claude Gervaise (1525 - 1583)

Rondó
Tylman Susato (ca.1510 - 1570)



Ministriles Hispalensis

●●● XV., XVI. eta XVII. mendeetako instrumentu-kaperen interpretazio-estiloa, musika-tresnak eta sonoritatea berreskuratzeke asmoarekin sortu zen taldea. Instrumentu-taldearen oinarria kornetak, txirimiak, sakebutak eta basoiak dira, nahiz eta horiek beste hari-, tekla- eta perkusio-tresna batzuek osatzen dituzten, errepertorioak eskatzen duenean. Garai hartako

Europako katedral garrantzitsuenetako kaperen zati ziren ministrilak, eta haien eginkizun nagusia abestaldeari lagun egitea zen zerbitzu liturgikoetan. Dena den, beren kasa ere parte hartzen zuten prozesioetan eta gizarte-ekitaldietan.

Mota honetako taldeetarako sortutako musika da, hizkuntza berritzailekoa

eta sarritan bertuosismo handikoa, gure egun hauetaraino iritsi den instrumentu-jardunbidearen oinarriak ezarri zituen.

Festival de Música Antigua de Sevilla (FeMÁS) jaialdiaren 2005, 2007, 2009, 2013, 2015 eta 2017ko edizioak inauguratu ditu Ministriles Hispalensis taldeak, aire zabalean egin-dako errezitaldi jendetsuak eginez: Errege Alkazarreko harresiaren ondoan, Sevil-lako udaletxe handientsu eta barrokoaren aurrean,

Salbatzailearen plazan eta Sevillako beste leku enblematiko batzuetan. Bai FeMÁS jaialdiaren inaugurazioetan, bai haren programazioaren barnean, Ministriles Hispalensis taldeak Europako musikari eskainitako kontzertuak eman ditu, Sevillako musikari, Sevillako katedraleko zenbait kapera-maisuren errepertorioari, Sevillako katedraleko 34. zenbakiko atril-liburuko lanak berreskuratuz... dela beren ekoizpenen bidez, dela beste talde edo solista batzuekin elkarlanean arituz, besteak beste, Accademia del Piacere eta Andrés Cearekin.

Ministriles Hispalensis Andaluzian birak egiten aritu da Circuito Andaluz de Música programaren barnean, Sevilla, Kordoba, Cádiz eta Huelvan. Zehazki, XVI. eta XVII. mendeetako ministrilentzako liburutatik taldeak berak transkribatutako lan argitaragabeak aurkeztu ditu, Lerma eta Granadako eskuizkribuetakoak.

Taldea Mexikora eta Guatemala-lara joan zen 2007an eta 2008an, eta han, Capi-

lla Nivariense taldearekin batera, Portugalgo musikako programa bat interpretatu zuen.

Hexacordo taldearen barnean, Ministriles Hispalensisek XVII. mendeko Europako musikaren programa bat garatu zuen 2009an Eslovenian. 2010ean, berriz, Norwegian (Tromsø), Los Afectos Diversos taldearekin batera eta Nacho Rodríguez-ek zuzenduta, *II Vespro Della Beata Vergine* (Claudio Monteverdi) interpretatu zuen.

2013az geroztik, XVI. eta XVII. mendeetan jaiotako kofradien irudi titularrei lagun egiten zieten jatorrizko musika eta estetika eramaten du Ministriles Hispalensis taldeak Andaluziako prozesioetara, ekitaldi haietarako hasierako musika berreskuratuz.



Club Academia da Espada-Coruña



Antzinako ezpaten erakustaldia

Irailak 5 — 18:30etik aurrera

**LOS LLANOS KULTURGUNEKO
LORATEGIAK**

Kalean bertan

Ton Puey, garai bateko ezpatak
Xosé Nieto, garai bateko ezpatak
Eduardo Varela García, garai bateko
ezpatak
Moncho Varela, garai bateko ezpatak

PROGRAMA

Lau ezpatarik antzinako ezpaten erakustaldi bikaina egingo dute, Ministriles Hispalensis taldearen zuzeneko musikaren babesean. Urrezko Menderako bidaia izango da, ezpatak, dagak, brokelak, erredolak, mangualak, montanteak lagun hartuta; zientzia, artea eta oparotasuna. Kapare harroputz, hantuste eta liskarzaleen munduan murgiltzea ekarriko dute.



Club Academia da Espada-Coruña

●●● Academia da Espada borroka-artearen eskola bat da, Europako borroka-arte historikoen. Zehazki, XVI. mendearen bigarren erdiaren eta XVII. mendearen arteko aldia aztertzean jartzen du arreta, XVIII. mendearen lehen urteak barne hartuta, Iberiar penintsulan.

Aldi hori benetako urrezko aroa da, Urrezko Mendeko literatura- eta musika-distirarekin batera gertatu zena, bi mende baino gehiagoan iraun zuten eskolak garatuz eta bai literatura oparoa ere, zeina, Errenazimenduan eta barrokoan Europa osoan garatutako diziplina askoren antzera, borroka-jardunbide hauek antolatu eta azaltzen saiatu zen.

Escuela de la Verdadera Destreza 1569an hasi zuen Jerónimo Sánchez de Carranza lizentziatuak, *De la Filosofía de las armas* (...)

tratatua idatzita, eta Luís Pacheco de Narváez militarrek jarraitu eta garatu zuen, Felipe IV.a erregearen maisuak. Aldi horretako eskola garrantzitsuenak izan zen, egitura bateratua izan zuen, eta maisu berri ugari, tratatu berrien bidez, beren ikuspegia eta aldaketa tekniko eta sozialetarako egokitzea eman zioten.

Academia da Espadaren corpus nagusia eskola hori aztertzea da (garai hartan zeuden beste batzuen dokumentu eskasez gain, esate baterako, Luiz Godinho portugaldarraren *Arte de Esgrima* tratatua), eta bere burua matematikarekin, geometriarekin, filosofiarekin, musikarekin, astronomiarekin eta abarrekin lotutako zientziazat jotzen du.

Aztertze hori aldi hartan erabilitako tresnen pisuen, neurrien eta oreken kopia zehatzen bidez gauzatzen da: ezpata eta bermatzeko armak, «arnes bikoitzak» esaten zaienak, adibidez, daga, brokela, erredola, edo kapa, edo azta-armak, manguala eta montante handia.

Academia da Espadaren zuzendari teknikoa Ton Puey da, arma-maisu moduan aitortua HEMA Portugalek eta FISek (Italiako Esgrima Federazioa) italiarra ez den eta berak aitortutako esgrima historikoko lehen maisu gisa. Verdadera Destreza dibulgazio lana egiten du, ikastaroak eta mintegiak ematen Europa osoan, Ameriketako Estatu Batuetan, Mexikon, Turkian, Txinan eta Australian.



Núria Rial & Accademia del Piacere



Muera Cupido

Irailak 5 — 20:00
SAN MIGEL ELIZA

Fahmi Alqhai, zuzendaritza

Núria Rial, sopranoa

ACCADEMIA DEL PIACERE
Rodney Prada, viola *da gamba* sopranoa
Johanna Rose, viola *da gamba*
Rami Alqhai, bioloia
Carles Blanch, gitara barrokoa
Javier Núñez, klabea
Fahmi Alqhai, viola *da gamba* sopranoa
eta musika-zuzendaritza

1700 inguruko Espainiako musika-tradizio eszenikoan zeharko ibilbidea, Núria Rialen ahots paregabearekin eta Accademia del Piacereren soinu sutsuarekin, Astea edertasunez eta emozioz beteta hasteko. Giovanni

PROGRAMA

Pavana

Francisco Guerau (1649 - ca.1722)

Yo hermosísima Ninfa

Sebastián Durón eta José de Torresi
egotzia (ca. 1670 - 1738)

Errezitatu - Aria, *El imposible mayor en amor le vence Amor*

Quantos teméis al rigor

Sebastián Durón (1660 - 1716)

Arietta italiana. Rezitado [Brioso] - [Vibo],
Las nuevas armas de Amor

Xácaras & Folías

Inprobisazioa

Sosieguen, descansen

Sebastián Durón

Solo humanoa, *Salir el Amor del Mundo*

Fandango

José de Nebra (1702 - 1768)

Selva Florida

José de Nebra

Aria, *Viento es la dicha de Amor*

Marionas

Fahmi Alqhai (n. 1976)

Pastorella che tra le selve

Giovanni Bononcini (1670 - 1747)

[ms 2245, Espainiako Liburutegi Nazionalekoa]

Adiós, prenda de mi amor


José de Nebra

Aria, *Amor aumenta el valor*

Tempestad grande, amigo

José de Nebra

Fandangoa, de *Vendado es amor, no es ciego*



Núria Rial

●●● Kantua eta pianoa sorterrian ikasi zuen, Katalunian, eta gero ikasketak Basi-leako Music Academyn (Suitza) jarraitu zituen, Kurt Widmer irakaslearekin. 2003an, Preis der Helvetia Patria Jeunesse Stiftung saria jaso zuen Pro Europa-European Foundation for Culture fundazioarena, kantari moduan izandako ohiz kanpoko lorpenengatik. Europako jaialdi nagusietan aritu da, eta hainbat zuzendarirekin kolaboratzen du, besteak beste, Ivan Fischer, Sir John Eliot Gardiner, Paul Goodwin, Trevor Pinnock, Howard Griffiths, Gustav Leonhardt, René Jacobs, Thomas Hengelbrock, Laurence Cummings, Neville Marriner eta Teodor Currentzisekin, eta bai taldeekin ere, hala nola Concerto Köln, The English Concert, Kammerorchester Basel, Colle-

gium 1704, Il Giardino Armonico, Les Musiciens du Louvre, Elbipolis Barockorchester, Le Cetra Basel, L'Arpeggiata eta Festival Lucerne Stringsekin.

Operaren arloan, Europako antzoki nabarmenenetako askoren ekoizpen garrantzitsuetan parte hartu du solista gisa. Halaber, sarri interpretatu du musika barrokoa irizpide historikoein, eta beste estilo batzuekiko interesa agertu du. Hartara, 2012an, Núriaren rola jokatu zuen Golijoven *Ainadamar* opera garaikidean, Madrilgo Errege Antzokirako, Peter Sellars-ekin zuzenduta. 2015ean eta 2016an, berriro Pamina abestu zuen Budapest Festival Orchestrarekin, Ivan Fischerrek zuzenduta.

Ganbera-musikako interpretatzailea ere bada, eta Rial, besteak beste, Il Pomo d'Oro, Café Zimmermann eta Nash Ensemble taldeekin aritzen da. Errezitaldietan, errepertorio frantsesa eta espainola abesten du, baina baita alemaneko abestiak ere.

Núria Rialen diskografia zabalean, zenbait zigilu ageri dira, hala nola Harmonia Mundi France. 2009az geroztik, Sony Classical/BMG Masterworks etxearen artista eskusiboa da. 2010ean, Echo Klassik saria jaso zuen Via Crucis CDarengatik, Christina Pluhar eta L'Arpeggiatarekin, eta 2012an, *Telemann* CDarengatik saritu zuten, Basel Chamber Orchestrarekin, Operako Arien CD Onenaren kategorian.





Fahmi Alqhai

●●● Mundu osoan *viola da gamba* edo zango-biolaren interpretatzaile garrantzitsuenetakotzat jotzen da egun.

Sevillan jaio zen, 1976an, eta aita siriarra eta ama palestinarra ditu. Sevillan eta Suitzan hartu du prestakuntza, Ventura Rico, Paolo Pandolfo eta Vittorio Ghielmi irakasleekin. Lehen mailako taldeekin eta zuzendariekin lan egin eta gero, besteak beste, Jordi Savall, Ton Koopman eta Uri Cainerekin, ibilbidea alderdi solistara eta bere taldera, Accademia del Piacere talde-
ra, bideratu du. Fahmi Alqhai grabazio berritzaileak zuzendu ditu Glossa etxerako

(*Rediscovering Spain, Cantar de Amor...*), eta mundu osoan aitoren garrantzitsuek jaso dituzte, baita musika historikoen alorretik kanpo ere. Esate baterako, halakoak dira Giraldillo saria, 2012ko Sevillako Flamenkoko Bienaleko Musika Onenaren arloan, *Las idas y las vueltas* bere laugarren CDarengatik, Arcángel flamenko-kantariarekin, eta 2016ko Giraldillo saria, Berrikuntzaren arloan, Diálogos lanarengatik, Rocío Márquezekin batera.

2014an, Alqhai bere lehen CDa aurkeztu zuen bakarkakoan, *A piacere*, eta bertako zango-biolaren kontzepzio berritzaileak harrera bikaina izan zuen Europa osoan. Britainia Handiko Gramophone aldizkariaren iritziz, disko «aparta» da, «*viola da gamba* indar pozgarriko alor berri batera eramaten duena» eta «ordain zoriontsu bat, biola izan zitekeen guztiari, eta oraindik izan daitekeenari».

Harekin bira egin zuen Japonian eta AEB-etan, eta Accademia del Piacere zuzendu du oso kontzertu-areto garrantzitsuetan, adibidez, Vienako Konzerthausen eta Berlingoan, Hanburgoko Elbphilharmonie berrian, Koloniako Philharmonien (Alemania), Madrilgo Auditorium Nazionalan (Espainia) eta Holanda, Mexiko, Kolonbia, Suitza, Frantzia, Italiako beste agertoki batzuetan... 2016an, bere lan pertsonalena aurkeztu zuen solista moduan, *The Bach Album*, Glossa etxerako. 2016ko Disko Onenaren Ikus-entzuleen Saria jaso zuen GEMArengatik, Disko Aparta Scherzorengatik eta Urrezko Melomanoa. 2018an, Hiriko Domina eman zioten Sevillan.

2009az geroztik, FeMÀS Sevillako Antzinako Musika Jaialdiaren zuzendari artistikoa da.



Irailak 6

Ministriles Hispalensis



Musika txikia:
La rubia pastorica

Irailak 6 — 11:00

SANTA KLARA KOMENTUA

Francisco Blay, zuzendaritza

Álvaro Garrido, perkusioa
Jorge Enrique García, kontratenorra
eta txirula ezia
Jacobo Díaz, txirimia
Carmelo Sosa, sakebut altua eta tenorra
Francisco Blay, sakebut tenor eta baxua,
eta zuzendaritza artistikoa

Familientzako kontzertua. Zehazki, taldea eratzen duten musika-tresna desberdinei buruzko bitxitasunak azalduko dira, instrumentu- eta ahots-hizkuntzaren berezitasunak, eta bai XVI. eta XVII. mendeetako ministril garrantzitsuenen pasadizoak ere.

Ministriles Hispalensis

●●● XV., XVI. eta XVII. mendeetako instrumentu-kaperen interpretazio-estiloa, musika-tresnak eta sonoritatea berreskuratzeko asmoarekin sortu zen taldea. Instrumentu-taldearen oinarria kornetak, txirimiak, sakebutak eta basoiak dira, nahiz eta horiek beste hari-, tekla- eta perkusio-tresna batzuek osatzen dituzten, errepertorioak eskatzen duenean. Garai hartako Europako katedral garrantzitsuenetako kaperen zati ziren ministrilak, eta haien eginkizun nagusia abes-taldeari lagun egitea zen zerbitzu liturgikoetan. Dena den, beren kasa ere parte hartzen zuten prozesioetan eta gizarte-ekitaldietan.

Mota honetako taldeetarako sortutako musika da, hizkuntza berritzailekoa eta sarritan bertuosismo handikoa, gure egun hauetaraino iritsi den instrumentu-jardunbidearen oinarriak ezarri zituen.

Festival de Música Antigua de Sevilla (FeMÁS) jaialdiaren 2005, 2007, 2009, 2013, 2015 eta 2017ko edizioak inauguratu ditu Ministriles Hispalensis taldeak, aire zabalean egindako errezitaldi jendetsuak eginenez: Errege Alkazarreko harresiaren ondoan, Sevillako udaletxe handientsu eta barrokoaren aurrean, Salbatzailearen plazan eta Sevillako beste leku enblematiko batzuetan. Bai FeMÁS jaialdiaren inaugurazioetan, bai haren programazioaren barnean, Ministriles Hispalensis

PROGRAMA

Dantzak, pabanak, aurreko eguneko musika-kalejirako abestiak lan hauekin tartekatuko dira:

Passacalle
Andrea Falconieri (ca.1585 - 1656)

Amor que me cautivas
Thoinot Arbeau (1520 - 1595)

Contrapunto Bestiale Alla Mente
Adriano Banchieri (1568 - 1634)

Pues que no puedo olvidarte
Ginés de Morata (XVI. mendea)

La Rubia Pastorcica
Ginés de Morata
(Cancionero de Medinaceli)

Xicochi Xicochi
Gaspar Fernández (ca.1563 - 1629)



taldeak Europako musikari eskainitako kontzertuak eman ditu, Sevillako musikari, Sevillako katedraleko zenbait kapera-maisuren errepertorioari, Sevillako katedraleko 34. zenbakiko atril-liburuko lanak berreskuratuz..., dela beren ekoizpenen bidez, dela beste talde edo solista batzuekin elkarlanean arituz, besteak beste, Accademia del Piacere eta Andrés Cearekin.

Ministriles Hispalensis Andaluzian birak egiten aritu da Circuito Andaluz de Música programaren barnean, Sevilla, Kordoba, Cádiz eta Huelvan. Zehazki, XVI. eta XVII. mendeetako ministrilentzako liburuetatik taldeak berak transkribatutako lan argitaragabeak aurkeztu ditu, Lerma eta Granadako eskuizkribuetakoak.

Taldeak Mexikora eta Guatemala-

ra joan zen 2007an eta 2008an, eta han, Capilla Nivariense taldearekin batera, Portugalgo musikako programa bat interpretatu zuen.

Hexacordo taldearen barnean, Ministriles Hispalensisek XVII. mendeko Europako musikaren programa bat garatu zuen 2009an Eslovenian. 2010ean, berriz, Norvegian (Tromsø), Los Afectos Diversos taldearekin batera eta Nacho Rodríguezek zuzenduta, *II Vespri Della Beata Vergine* (Claudio Monteverdi) interpretatu zuen.

2013az geroztik, XVI. eta XVII. mendeetan jaiotako kofradien irudi titularrei lagun egiten zieten jatorrizko musika eta estetika eramaten du Ministriles Hispalensis taldeak Andaluziako prozesioetara, ekitaldi haietarako hasierako musika berreskuratuz.



Ensemble Musicantes & Tantatachán Teatro



Musika txikia: *Las aventuras de Martín*

Irailak 6 — 17:30
SANTA KLARA KOMENTUA

Xurxo Ordoñez, haizea
Milena Fuentes, hari igurtzia
Jaime del Amo, hari pultsatua
eta zuzendaritza
Wafir Shaikheldin, perkusioa
Juan José Arauz, antzerki-zuzendaritza
Laura Yepes, aktorea

PERTSONAIK

Martín, ezkutari protagonista
Rodrigo, zaldun maltzurra
Juglar, kontalaria
Isabel, printzesa
Coscorrón, herensugea

Antzerki musikala, non Martínen abenturak kontatzen diren. Ezkutari gazte bat da, zaldun bihurtzeko ametsa duena. Horretarako, hainbat proba gainditu beharko du, ordea, lagun fantastiko batzuen ezin estimatuzko laguntzarekin. Printzesak, herensugeak, zaldunak eta askoz ere pertsonaia gehiago, txikiek eta helduek une ahaztezina igarotzeko.

PROGRAMA

Douce Dame Jolie

Guillaume de Machaut
(Frantzia, XIV. mendea)
Virelai frantsesa

La Bestiola (CSM 354)

Alfontso X.a Jakituna
(Espainia, XIII. mendea)
Cantiga de Santa María (Virelay)

Avrix mi galanica

Izengabea (Espainia, XIV. mendea)
Herri-kantutegi sefardia

Quen os pecadores (CSM 227)

Alfontso X.a Jakituna
(Espainia, XIII. mendea)
Cantiga de Santa María (virelaia)

Stella Splendens

Izengabea (Espainia, XIV. mendea)
Llibre Vermell de Montserrat

Trotto

Izengabea (Italia, XIV. mendea)
Dantza juglareen eskuizkeribua

Lamento de Tristano

Izengabea (Italia, XIV. mendea)
Dantza juglareen eskuizkeribua

Danse

Izengabea (Frantzia, XIII. mendea)
Cancionero del Rey (ihesaldia)

Estampida nº 7

Izengabea (Frantzia, XIII. mendea)
Cancionero del Rey (ihesaldia)

Rotta

Izengabea (Italia, XIV. mendea)
Dantza juglareen eskuizkeribua

Saltarello

Izengabea (Italia, XIV. mendea)
Dantza juglareen eskuizkeribua

Sen calar nen tardar (CSM 380)

Alfontso X.a Jakituna
(Espainia, XIII. mendea)
Cantiga de Santa María (virelaia)



Ensemble Musicantes

●●● Musicantes bere kideen jakin-nahiak sorrarazi zuen, Erdi Aroko musika aztertu eta jotzean sakondu nahian.

Taldearen kontzertuen artean, jaialdi hauetan egindakoak nabarmendu behar dira: Madrilgo Erkidegoko Festival Clásicos en Verano, Festival de Música Medieval de Alarcos, Ciclo de Música y Patrimonio de la comarca Sierra de Arcos (Teruel), Jornadas Medievales de Oropesa, Festival de Música Antigua y Sacra de Getafe, Ciclo Música Nas Ruinas del Museo de Pontevedra, Ciclo Música para una época del Museo de Belas Artes da Coruña, Festival Veranos en Cuenca, Jornadas Musicales de Calatañazor (Soria), Jornadas de Patrimonio Histórico de Pinto,

Jornadas histórico-Turísticas de Manzanares Medieval, Festival de la Ribagorza, Muestra de Música Antigua de Aracena, Festival Internacional de Música Antiga Fora do Lugar (Portugal), Festival de Música Provincia de Palencia, Festival Almagro Enclave de Música, Festival de Música Antigua de Almodóvar del Campo, Festival de Plectro de Alcalá de Henares eta Castillo de los Mendoza de Manzanares el Real (Madril), besteak beste. Beti harrera ezin hobea egin diote, eta antzinako musikako espezialistek eta ikus-entzuleek, kritika bikainak.

Erabiltzen dituzten tresnak (arrana, Erdi Aroko lautea, giterna, laute arabiarra, arrabita, salterioa, tuntuna, zarrabetea, perkusioa, txirulak, gaitak, txirimia, biola eta fidula) garai hartako instrumentuen erreproduzioak dira, gure herrialdean dagoen ikonografian inspiratuak.

Errepertorioak XIII. mendearen eta XV.aren artekoa hartzen du barne (Erdi Aroko musika monodikoa, Ars Novaren polifonia eta Errenazimenduaren hasiera).



Tantatachán Teatro

●●● Tantatachán Teatro haur-hezitzaileek, artistek, animatzaileek eta txotxongilolariek osatutako taldea da, eta bere ibilbide profesionalean haur- eta gazte-antzerkian espezializatu da nagusiki.

Juan José Arauz taldearen sortzaileak 1989an hasi zuen ibilbidea, hainbat eta hainbat ikastaro eginez, antzerkia, ahotsa, makillajea, kaleko eta aretoko animazioa, gorputz-adierazpena eta dantza (Compañía Teatro de la Danza), irati-lokuzioa, *clown*-a, mimoa, pantomima eta goma-aparrezko txotxongiloak egitea ikasteko.

Arauzen ibilbide profesionala publizitateko, telebistako eta zinemako lanetan laburbiltzen da, aktore, figurante eta animatzaile arituta Parque Españán, Japonian. Horrez gain, *clown*, mago, animatzaile eta txotxongilolari aritzen da.

Anima y Acción eta La Nada Teatro taldeen sortzailea da, eta egun Tantatachán Teatrorena. 2010ean Laura Yepes taldean sartzean, elkarrekin taldearen txotxongilo-ikusketaz guztiak gauzatzen dituzte.

Artefactum



In vino veritas

Irailak 6 — 20:00
SAN MIGEL ELIZA

Álvaro Garrido, zuzendaritza

Alberto Barea, kantua eta oboe-motak
César Carazo, kantua eta biola
José Manuel Vaquero, kantua, *organetto* eta zarrabetea
Ignacio Gil, txirula eztiak, kapsula-oboea, gaita eta koruak
Álvaro Garrido, perkusioa eta koruak

Egungo gizartean bizi dugunaren oinarriak Erdi Aroan eraiki zituzten jendeen espirituaz, egunerokotasunaz eta bizi-irrikaz horditzera gonbidatzen du programa honek ikus-entzulea; dena Erdi Aroko oinarritzko zutabea izan zenaren, ardoaren, ikuspegi pribilegiatu horretatik. Egin dezagun topa!



PROGRAMA

Preámbulo

Estampida en mai la rousse y ungaresca

Thibaut IV de Champagne
(XIII. mendea) eta izengabea
(XIII., XIV. mendeak)

Vino en las cántigas

La dona de Bretaña

Alfontso X.a Jakituna (XIII. mendea)
Cantiga Santa María, 23. xk.

A que avondon

Alfontso X.a Jakituna
Cantiga Santa María, 386. xk.

Virgen Santa María

Alfontso X.a Jakituna
Cantiga Santa María, 23. xk.

Visión trovadoresca

Ai amor de pero cantone

Fernando Soares de Quiñones
(XIII. mendea)

Vino y clero

Divinum misterium

Códice de las Huelgas (XIV. mendea)

Camino de la taberna

Adieu ces bons du vins de Lannoy

Guillaume Dufay (XV. mendea)

Bon vin doit

Roman de Fauvel (XIV. mendea)

Bon vin je ne puis laisser

François Rabelais (XV. mendea)

En la taberna

Quand je bois du vin claret

Izengabea, tradizionala Proventzakoa
(XV. mendea)

Alte clamat epicurus

Carmina Burana 221. zk. (XIII. mendea)

In taberna quando sumus

Carmina Burana 196. zk. (XIII. mendea)

Vinum bonum

Carmina Burana (XIII. mendea)



Artefactum

●●● 1995ean sortua, Artefactumek bere lanaren arreta Erdi Aroko musika-errepertorioa berreskuratu, birsortu eta zabaltzean jartzen du, eta erabateko erreferentziazko taldea da Erdi Aroko musikaren esparruan gure herrialdean.

Espainiako antzinako musikako jaialdi ospetsuetan aritu izan da (Bartzelona, Madril, Gijón, Úbeda eta Baeza, Toledo, Valladolid, Iruñea, Olivares, Aracena, Jerez, Girona, Cáceres, Albacete, Ciudad Rodrigo, Lizarra, Portugalete, Donostiako Hamabostaldia, Aranjuez, Kordoba, Santander, Tiana, Sevilla, etab.). Era berean, taldea sarritan gonbidatu izan dute gure mugetatik harago antolatutako jaialdietan Espainiaren ordezkariak izateko (Italia, Portugal, Frantzia, Japonia, Eslovenia...). 2016ko azaroan, taldeak bere aurkezpena egin zuen Japonian, eta kontzertuak eman zituen Tokion eta Hamamatsuko nazioarteko jaialdian. 2017an, Artefactumek, Schola Antiqua taldearekin batera, Festival de

Música Medieval de las Huelgas ospetsuan parte hartu zuen, Ondare Nazionalak antolatutako kontzertu batean, eta *De Castilla a Al Andalus* programa aurkeztu zuen. 2018an berriro parte hartu zuen, eta *Gloria in Coelo* erlijio-programa aurkeztu zuen. Halaber, taldea duela gutxi Leongo Musika Historikoen Ziklora gonbidatu dute, eta aurkezpena egin du Adelaideko nazioarteko jaialdian, Australian, 2020ko martxoan, *In vino veritas* programa aurkeztuz.

Taldeak sei lan diskografiko ditu editatuta, eta haietako batek, *En el Scriptorium* izenburua duenak, CD Compact saria lortu zuen 2009an, gure herrialdeko Erdi Aroko musika-grabazio onena izateagatik. Taldearen azken diskoa, *Musica ad navitatis tempus*, Madrilgo Auditorium Nazionalan aurkeztu zuten, 2016ko abenduan, eta harrera bikaina egin zioten bai publikoak eta bai prentsak ere.





Dolce tormento

Irailak 7 —17:30
SANTA KLARA KOMENTUA

Julieta Viñas Arjona, sopranoa
Paula Brieba del Rincón, tiorba

«*Dolce tormento*» oximoronak kontraesan eder bat definitzen du, musikak, testuaren zerbitzura jarrita, Italian garatu zen pasioen lehen barroko honetan esploratzen duena. Ahots eta baxu jarraiturako ezinbesteko lanak, Monteverdi, Merula, Strozzi, Frescobaldi eta abarrenak, geroa aroa sortzearen fenomenoaren eredu adierazten dutenak: monodia lagundua. Dena, Julieta Viñasen zilarrezko ahotsean eta Paula Briebaren tiorbaren harikortasunean.

PROGRAMA

Folle è ben che si crede
Tarquinio Merula (1595 - 1665)

L'amante consolato
Barbara Strozzi (1619 - 1677)

Novello Cupido
Biagio Marini (1594 - 1663)

Chiamata a nuovi amori
Barbara Strozzi

Canarios
Giovanni G. Kapsberger (1580 - 1651)

Se l'aura spira
Girolamo Frescobaldi (1583 - 1643)

Quel sguardo sdegnosetto
Claudio Monteverdi (1567 - 1643)

Che si può fare
Barbara Strozzi

Così mi disprezzate
Girolamo Frescobaldi

Aurora corrente
Bellerofonte Castaldi (ca. 1581 - 1649)

La travagliata
Barbara Strozzi

L'amante segreto
Barbara Strozzi

Si dolce è'l tormento
Claudio Monteverdi

Dolce Rima

●●● Dolce Rima 2009an sortu zuten Julieta Viñas eta Paula Brieba valentziar interpretatzaileek. Bien bideak Sevilla hirian elkartu ziren, Espainiako «Antzinako Musika» hiriburutzat jotakoaren kultura-asalduak erakarrira biak.

Poesiaren eta musikaren bat-egitean bereziki interesa duen duo moduan jaioa, Dolce Rima Europako XVI.-XVII. mendeetako kulturara hurbiltzen da, eta errepertorioa bihuela-jotzaileen Espainiako Errenazimenduko errepertorioan, Espainiako barrokoan eta Italiako *Seicentoan* ardazten du.

Egun, Dolce Rima eraketa aldakorrekotalde da, ohiko kolaboratzaileak izaten dituen jorratzen duen programaren beharren arabera, eta interes berezia jartzen du Espainiako musika-ondarea berreskuratzeko proiektuetan.

Eraketa desberdinetan, Dolce Rimak kontzertu ugari eskaini du penintsula osoan, antzinako musikako jaialdi garrantzitsuetan.

Turismo Andalucía erakundeak Murilloren omenezko urtea Berlinen ospatzeko (Alemania) aukeratu zuen taldeak, eta bai Uffizi Live 2017 kontzertuen zikloan ere, Florentziako Galleria Uffizirenean (Italia).

Askotan kolaboratzen du Engranajes Culturales enpresarekin (Sevilla) sormenezko kultura-aisiako hainbat proiektu sortu eta garatzen, eta bai diziplina anitzeko beste ikuskizun batzuetan ere. Haien artean



nabarmendu behar da *Caravaggio, la luz es la verdad* antzezlan, Luis Agiusena, Thyssen-Bornemisza museo nazionalen antzetzua (Madril, 2018), italiar margolaria-ri eskainitako erakusketa inauguratzearen kariaz.

Ikus-entzunezkoetarako egindako lanen artean, *Scriptorium* faksimile eskulibroen argitaletxearen publizitate-iragarkiari soinu jartzeko egindako kolaborazioa nabarmendu behar da, Bocabadats Mediak (2014) egindakoan, eta *Ánima* film laburraren (2011) soinu-bandarako musika hautatzea eta jotzea. Azken hori Bebé Pérez errealizadorearena da, eta Ana de Armas eta Leandro Espinosa ditu protagonista.

2013an, ahotserako musikari eta Espainiako Errenazimenduko bihuelari eskaini-

tako lehen lan diskografikoa egin zuten, *Al alba venid* izenburua duena, eta oso harrera ona izan zuen kritikarien artean. Michael Stoverrek The Lute Society of America aldizkarirako egin zuen erreseina nabarmendu behar da.

Dolce Rima GEMA Sarien I. Edizioan finalista izan zen, 2014ko Talde Gaztearen kategorian, eta GEMA Sarien II. Edizioan, 2016ko ekainean, 2015eko Talde Gaztearen sariaren irabazlea.

Dolce Rimak iraganeko orrialdeak berreskuratzeko asmoa du, oraingo bizimodua eta iritzia emanez interpretazioan, hartara, ikus-entzulearekin benetako konexioa izateko. Hartara, hori gertatzen denean, taldeak sentitzen du egindako lanak merezi izan duela.



Cantoría



Lenguas malas

Irailak 7 —20:00
SAN MIGEL ELIZA

Jorge Losana, zuzendaritza

Inés Alonso, sopranoa
Victoria Cassano, altua
Jorge Losana, tenorra eta zuzendaritza
Valentín Miralles, baxua

Ahots hutsezko musika, *a cappella*, Europako auditorium nagusietan arrakasta izanez musikaren arloan sartu diren lau ahots gaztek bikain abestuta. XVI. mendeko erreperitorioa, Guerrero, Flecha, Cárceresen... konposizioekin.



PROGRAMA

I

¡Sus, sus, sus!

Bartomeu Càrteres (fl. 1546)
La Trulla, zatia

Pase el agoa

Izengabea (XVI. mendea)
Cancionero Musical de Palacio

Dindirindín

Izengabea (XVI. mendea)
Cancionero Musical de Palacio

La Tricotea

Franco Alonso (XVI. mendea)
Cancionero Musical de Palacio

El Jubilate

Mateo Flecha «El Viejo» (1481 - 1553)
(Zatiak)

II

Señora de bermosura

Juan del Encina (1468 - 1529)
Cancionero Musical de Palacio

Con amores, la mi madre

Juan de Anchieta (1462 - 1523)
Cancionero Musical de Palacio

Prado verde y florido

Francisco Guerrero (1528 - 1599)
Medinaceliko kantutegia

La Justa

Mateo Flecha «El Viejo»
(Zatiak)

III

Falalalán, falalalera

Bartomeu Càrteres (fl. 1546)
Uppsala eta Gandiako kantutegiak

Teresica hermana

Mateo Flecha «El Viejo»
Uppsalako kantutegia

Corten espadas afiladas

Izengabea (XVI. mendea)
Medinaceliko kantutegia

La Bomba

Mateo Flecha «El Viejo»
(Zatiak)



Cantoría

●●● Cantoría ahots-talde bat da, Jorge Losanak zuzendua, 2016ko udan eratua Festival Internacional de Música Antigua de Sierra Espuña jaialdian eta jatorria Kataluniako Musikako Goi Mailako Eskolan duena. Hauek dira taldekideak: Inés Alonso (sopranoa), Samuel Tapia (kontratenorra), Jorge Losana (tenorra eta zuzendaria) eta Valentín Miralles (baxua).

EEEmerging 2018 (Emerging European Ensembles) programarako hautatu zutenetik –Europar Batasunak babestutako eta Centre Culturel de Rencontre de Ambronay (Frantzia) elkarteak antolatutako kooperazio-programa–, nazioartean ibilbi-

de handia egiten ari da, Italia, Alemania, Frantzia, Polonia, Erresuma Batua, Belgika, Kroazia, Lituania, Espainia eta Herbehere-tan ematen ari den kontzertuei esker. Era berean, etorkizun oparoko talde moduan hautatu zuten 2017an IYAPen (Artista Gazteen Nazioarteko Aurkezpena), Anberesen, Brujasko Antzinako Musikako Jaialdiko *fringe* edizioan eta Utrechtoko Oude Muziek Festival ospetsuko *fringe* edizioan, Fabulous Fringe Ensemble moduan arituz 2019an. 2018an, Cantoría ikus-entzuleen saria irabazi zuen EEEmerging jaialdian, Ambronayn, La Cité de la Voix, Vézelayn, egonaldi-programarako hautatu zuten eta Juventudes Musicales Española MuSAE proiektuan parte hartzeko gonbidatu zuten. Ondorioz, Espainiako Liburutegi Nazionalan eta Pradoko Museoan aritu zen. 2019an, Premio de Música Antigua FestClásica saria irabazi zuen, eta, hortaz, kontzertu-bira egin zuen Espainia osoan, Alemaniako irratian debuta egin zuen (WDR3) eta kolaborazioa hasi zuen Paviako Centro di Musica Antica Ghislierirekin, talde egoiliar moduan.

Espainiako Urrezko Aroko ahots-musikan oinarritzen da nagusiki Cantoríaren errepertorioa. Historikoki informatutako interpretazio-tekniken ikerketarekin batera, Cantoría Errenazimenduko ahots-musikaren antzerki- eta komunikazio-izaera esploratu eta baliatzen du eta Errenazimendu iberiarreko ahots-teknikak ikertzen ditu. Acción Cultural Española, Instituto Nacional de Artes Escénicas y Música, Consejería de Cultura de la Comunidad de Madrid eta Instituto de las Industrias Culturales de Murcia erakundeek babesa du Cantoría.





SMADE Soziala

Irailak 8 —12:00
SAN JERÓNIMO EGOITZA

Inés Alonso, sopranoa
Victoria Cassano, altua
Jorge Losana, tenorra eta zuzendaritza
Valentín Miralles, bajo

Ahots hutsezko musika, *a cappella*,
Europako auditorium nagusietan
arrakasta izanez musikaren arloan sartu
diren lau ahots gaztek bikain abestuta.

PROGRAMA

XVI. mendeko errepertorioa, Guerrero,
Flecha, Cárceresen... konposizioekin.

●●● **Cantoría** ahots-talde bat da, Jorge Losanak zuzendua, 2016ko udan eratua Festival Internacional de Música Antigua de Sierra Espuña jaialdian eta jatorria Kataluniako Musikako Goi Mailako Eskolan duena. Hauek dira taldekideak: Inés Alonso (sopranoa), Samuel Tapia (kontratenorra), Jorge Losana (tenorra eta zuzendaria) eta Valentín Miralles (baxua).

EEEmerging 2018 (Emerging European Ensembles) programarako hautatu zutenetik –Europar Batasunak babestutako eta Centre Culturel de Rencontre de Ambronay (Frantzia) elkarrekin antolatutako kooperazio-programa–, nazioartean ibilbide handia egiten ari da, Italia, Alemania, Frantzia, Polonia, Erresuma Batua, Belgika, Kroazia, Lituania, Espainia eta Herbeheretan ematen ari den kontzertuei esker. Era berean, etorkizun oparoko talde moduan hautatu zuten 2017an IYAPen (Artista Gazteen Nazioarteko Aurkezpena), Anberesen, Brujasko Antzinako Musikako Jaialdiko fringe edizioan eta Utrechtoko Oude Muziek Festival ospetsuko fringe edizioan, Fabulous Fringe Ensemble moduan arituz 2019an. 2018an, Cantoría ikus-entzuleen saria irabazi zuen EEEmerging jaialdian, Ambronayn, La Cité de la Voix, Vézelayn, egonaldi-programarako hautatu zuten eta Juventudes Musicales Españako MuSAE proiektuan parte hartzeko gonbidatu zuten. Ondorioz, Espainiako Liburutegi Nazionalen eta Pradoko Museoen aritu zen. 2019an, Premio de Música Antigua FestClásica saria irabazi zuen, eta, hortaz, kontzertu-bira egin zuen Espainia osoan, Alemaniako irratian debuta egin zuen (WDR3) eta kolaborazioa hasi zuen Paviako Centro di Musica Antica Ghislierirekin, talde egoiliar moduan.

Espainiako Urrezko Aroko ahots-musikan oinarritzen da nagusiki Cantoríaren errepertorioa. Historikoki informatutako interpretazio-tekniken ikerketarekin batera, Cantoría Errenazimenduko ahots-musikaren antzerki- eta komunikazio-izaera esploratu eta baliatzen du eta Errenazimendu iberiarreko ahots-teknikak ikertzen ditu. Acción Cultural Española, Instituto Nacional de Artes Escénicas y Música, Consejería de Cultura de la Comunidad de Madrid eta Instituto de las Industrias Culturales de Murcia erakundeekin babesa du Cantoría.



La flor en paradis

Irailak 8 —17:30
SANTA KLARA KOMENTUA

Guillermo Pérez, zuzendaritza

Anne-Kathryn Olsen, sopranoa
David Mayoral, perkusioa
Guillermo Pérez, *organetto*

Tasto Solo Erdi Aroko musika-talde birtuosoak unibertso artistiko bat aurkeztuko digu, eta bertan, sakratua eta profanoa, literala eta alegorikoa, testua eta bere metatestua konbinatzen dira. Maitasunezko olerkiekin hitz egiten duten kanta lauak, errealitatearen eta metaforaren arteko konbinazio intimoak sortzen.

PROGRAMA

Ad missam

Kyrie

Izengabea
Monasterio de las Huelgas,
Codex Las Huelgas

Sanctus

Izengabea
Bartzelona, Orfeo Català, MS I

Benedicamus Domino

Izengabea
Florentzia, Biblioteca Medicea-Laurenziana,
MS 29.1

Estampidas

Chominciamento di gioia

Izengabea
Londres, British Library,
Add. 29987

In pro

Izengabea
Londres, British Library,
Add. 29987

Motetes

O Maria Virgo

Izengabea
Monasterio de las Huelgas,
Codex Las Huelgas



Danse real

Izengabea
Paris, Bibliothèque Nationale de France,
Le Manuscrit du Roy

Plus belle que flor

Izengabea
Monasterio de las Huelgas,
Codex Las Huelgas

Quand repaire la verdor

Izengabea
Montpellier, Faculté de Médecine, MS H 196

Secuencias

Casta Catholica

Izengabea
Monasterio de las Huelgas,
Codex Las Huelgas

Maria Virgo

Izengabea
Monasterio de las Huelgas,
Codex Las Huelgas

Tasto Solo

●●● Erdi Aroaren amaierako eta Errenazimenduaren hasierako fintasun eta bertuosismo handiko erreperitorioak berraurkitzen ditu Tasto Solok. Guillermo Pérez *organetto-jotzaile* eta sortzailearen zuzendaritzapean, Tasto Solok Europa osokoak diren antzinako musikako espezialisten talde aparta elkartzen du, emanaldi fin eta bikainak aurkezteko. Emanaldi horietan, hain zuen, ikerketa historikoa sormenarekin eta emozioak transmititzeko artearekin konbinatzen du. Publikoa liluratuta gelditzen da lehen unetik, Tasto Soloren nortasun paregabea eratzen duten sonoritate iradokitzaile eta ezohikoek bilduta. Hartara, taldeak rol erabakigarria izan du ahaztuta zeuden eta egun beren distira osoa eszena artistikoan berraurkitzen duten musika-erreperitorioak berreskuratu eta hedatzean. Tasto Soloren diskografiak, egun, hiru disko ditu, Belgikako Passacaille etxeak emanak argitara: *Meyster ob allen Meystern*, *Le chant de leschiquier* eta *Early Modern*

English Music. Bi album horiek zenbaitetan jaso dute Diapason d'Or ospetsua eta era berean jaso dute nazioarteko prentsaren sarri-kopuru handia, adibidez, Amadeus CD de Mes, Ritmo & Audio Clásica *Excelente*, Pizzicato *Supersonic*, Scherzo *Excepcional*, France Musique *Coup de Cœur* eta ICMA izendapena.

Taldea aldizka gonbidatzen dute antzinako musikako jaialdi ospetsuetan eta kontzertu-aretoetan aritzera, eta haien artean hauek nabarmentzen dira: Palácio Nacional de Sintra (Portugal), L'Auditori de Barcelona (Espainia), Fondation Royaumont (Frantzia), Saintesko jaialdia (Frantzia), Berlingo Konzerthaus (Alemania), Wiener Konzerthaus (Austria), Laus Polyphoniae & AMUZ (Belgika), Concertgebouw Brugge (Belgika), Bruselako BOZAR (Belgika), Utrecht Oude Muziek Festival enblematikoa (Holanda), Cantar di Pietre (Suitza), Wratislavia Cantans (Polonia), Banchetto Musicale de Vilnius (Lituania), Radovljica Festival (Eslovenia), Bergen Medieval Music Days (Norvegia), Copenhagen Renaissance Music Festival (Danimarka) eta San Petersburgoko Early Music Foundation (Errusia). 2020an, taldeak debuta egin du Ameriketako Estatu Batuetan, Arizona State University Herberger Institute for Design and the Arts erakundearekin elkarlanean antolatutako kontzertu-bira eginez.

Tasto Solo egonaldia egiten ari da egun Château de Bournazelen, Frantziako Errenazimenduaren leku historiko berezietako batean. Taldea, era berean, bazkide-tuta dago l'Académie Bach de Arques-la-Bataillen, proiektu berriak bururatu, sortu eta hedatzeko.



Amandine Beyer & Vadym Makarenko



Le rappel des oiseaux

Irailak 8 — 20:00
SAN MIGEL ELIZA

Amandine Beyer, biolina
Vadym Makarenko, biolina

Amandine Beyer biolin-jotzaile paregabeak, Vadym Makarenkorekin batera, elkarrizketa bat aurkeztuko digu, non batak bestea behar duen bere alderdi ukiezina agerian uzteko. Bi biolinen arteko elkarrizketa, musika-tresna arinak, gogorazleak, ederrak, finak, gure irudimenak gu eramatea amets egiten duen tokiraino eramateko gai direnak.

PROGRAMA

Le Rappel des oiseaux
Jean-Philippe Rameau (1683 - 1764)

Op. 3 sonata, No. 5 mi menorren
Jean Marie Leclair (1697 - 1764)
Allegro ma poco - Andante/Gavotta - Presto

G. 65 biolinerako duoa, No. 3 fa menorren
Luigi Boccherini (1743 - 1805)
Andante - Allegro assai - Menuetto/Cantabile

No. 2 suitea, bi biolinetarako
L'Abbé le fils (1727 - 1803)
Ouverture, Air gracieux, Gavotte 1 et 2, deuxième Air Gracieux, Ballet, Air des Sauvages

No. 3 duo kontzertantea, re maiorren, Op. 57
Ch. A. de Bériot (1802 - 1870)
Moderato - Adagio - Allegretto

Op. 49 biolinerako duoak, No. 1 sol menorren eta No. 3 si bemol maiorren
R.M. Gliere (1875 - 1956)




Amandine Beyer

●●● 1974an jaioa Aix-en-Provencen, Amandinek bere lurraldetik oinordetzan jaso zuen eguzkiaren, landare usaintsuen eta Paul Cézanneren margolanen aldeko zaletasun nabarmena. 4 urte zituenean txirula ezia jotzen hasi zen eta 7 zituenean biolina, eta azken horrek lagun egin dio orain arte.

Ganberako musika jotzea du gogoko, eskolak ematea eta egun kontzertuak ematen aritzen da Gli Incogniti, Les Cornets Noirs, Kitgut Quartett bere taldeekin eta duan Pierre Hantaï, Kristian Bezuidenhout, Laurence ahizpa eta Vadym Makarenko biolinistarekin.

2010az geroztik Schola Cantorum Basiliensis aritzen da eskolak ematen, Chiara Banchini, Aurelia Sparato, Jean Ter Merquerian, Bárbara Krakauer, Dorothee Meury eta Alex Farkasek irakatsi ziotena partekatzen.



Vadym Makarenko

●●● Biolina ikasteko lehen urteetan, musikarekiko pasio handia garatu zuen Vadymek. Kieveko Musika Akademian prestakuntza hartzen ari zen bitartean, bidaia asko egin zituen nazioarteko hainbat jaialditara eta interes handia garatu zuen arte bisualekiko, bereziki, pintura eta zinemarekiko, denboraren zati handiena marrazteari eskainiz.

Antzinako musika aurkitzeak mendebaldeko Europarantz bide berri bati ekitera eramane zuen. Basileako Schola Cantorum-en ikasketak egin zituen bitartean, interpretazio historizistako ezagutzak sakondu zituen eta kontzertu ugari egin zuen munduko toki desberdinetan.

Azken proiektua talde bat eratzean datza, bere musika-ibilbidean berarekin batera hazi diren musikarietako batzuek eratuta eta Hospedale per gl'Infermi d'Amore ize-nekoa.



Èlia Casanova & Alfred Fernández



SMADE Soziala

Irailak 9 — 13:00

**JULIÁN ROMANO MUSIKA
ESKOLAKO AUDITORIUMA**

Èlia Casanova, sopranoa
Alfred Fernández, Errenazimenduko
lautea

Musika-testuren soiltasun zoragarriak eta gardentasunak argitasun ikaragarriko testuak izango dituzte lagun. Musika bereziko bilduma hauen gainean misterioa behatzen da. Nor ziren halako maila artistiko handia zuten sortzaile izengabe hauek? Èlia Casanova belusezko ahotsa duen sopranoak, Alfred Fernández vihuela-jotzailea lagun hartuta, jelsia-, maitasun-, heriotza- eta itxaropen-mundu batean murgilduko gaitu.



Èlia Casanova

●●● Valentziako Musikako Goi Mailako Kontserbatorioko kantuko goi-mailako titulua du, Consol Ricoren tutoretzapean. Gero, antzinako musikako ikasketak hobetu zituen Birminghamgo Kontserbatorioan, Ingalaterran, Andrew King tenor ospetsuarekin, eta hiri horretako Oratorioko eta Antzinako Musikako abeslari onenaren sariak irabazi zituen. 2014an, Gijongo Antzinako Musikako Nazioarteko Jaialdian, kantuko lehiaketako lehen saria eskuratu

zuen. Besteak beste, Richard Levitt, Eduardo López Banzo, Maria Grazia Schiavo, Lambert Climent, Manuel Cid, Robert Expert eta Helena Lazarskaren eskolak hartu ditu, eta Jordi Savall, Eduardo López Banzo, Fabio Biondi, Patrick Fournillier, Lluís Vilamajor, Francesc Prat, Cristóbal Soler, Juan Luis Martínez eta Jaron Traub zuzendariekin egin du lan adibidez.

Solista arituta Espainia osoan, Portugalen, Frantzia, Italia eta Txekiar Errepublikan egin ditu emanaldiak, esate baterako Capella de Ministrers, Harmonia del Parnás, la Capella Reial de Catalunya, Montsalvat abesbatza, L'Arcadia eta Alamire duota taldeekin batera. Hainbat jaialditan parte hartu du, adibidez: Festival de Música Antigua de Peñíscola, Festival de Órgano Histórico de León, Festival de Música Antigua de Gijón, Gois Oroso Arte, Ciclo de Música de Cámara y Valenciana Vicent Garcés de Faura, Festival Los Lunes Concierto de Castellón, Feslida. Askotan kolaboratzen du antzinako musikako Amystis Coro de Cámara eta Victoria Musicae taldeekin, eta

Alfred Fernández

●●● 1970ean jaio zen, Bartzelonan. Gitarra klasikoko ikasketak egin zituen Jordi Codina, Manel González eta Fernando Rodríguezekin. Gero, hari pultsatuko antzinako instrumentuetan espezializatu zen: bihuela, gitarra barrokoa, lautea... Heziketaz autodidakta, maisu ospetsuen aholkuak jaso ditu, hala nola William Waters, Rolf Lislevand, Paul O'dette eta John Griffithsenak. Egun, hiru disko ditu editatuta bakarlari moduan. Lan horiek kritika bikainak izan dituzte aldizkari espezializatuetan, adibidez, Répertoire, Le Monde de la Musique, Gramophone, Goldberg, Scherzo, Ritmo, Lute Society Magazine eta abarretan. Solista moduan kaleratuta duen azken albumak Répertoire aldizkariaren «10R» saria jaso du, eta bai kalifikazio gorenak ere beste zenbait aldizkaritan. Bakarlarari aritu da Espainian, Holandan, Frantzia, Alemanian, Ameriketako Estatu Batuetan, Belgikan, Grezian, Marokon, Brasilen eta Italian. Bihuela- eta laute-errezitaldiak egin ditu antzinako musikako eta gitarrako jaialdi entzutetsuetan, adibidez, Laus Polyphoniae (AMUZ, Anberes, 2012), Oude Muziek Utrecht (Utrecht, 2008), MA Brugge (Brujas, 2000), Lauteko Nazioarteko Jaialdia (Füssen, Alemania, 2010 eta Utrecht, Holanda, 2013), Guitarrísimo jaialdia (Munich), Guitarrísimo jaialdia (São Paulo), Festival de Música Antigua de Úbeda y Baeza (2008 eta 2012) jaialdietan. El canto del caballero taldeko zuzendarikidea da. Talde hori Iberiar penintsulako Errenazimenduko musikan espezialista da, eta Portugal, Holanda, Belgika, Austria eta Alemanian aritu da kontzertuak ematen.

Valentziako erreperitorio barroko grabazio batzuk egin ditu.

Abesbatzako kide moduan, Coral Catedralicia de Valencia, Cor de la Generalitat Valenciana eta Coro de RTVEen parte hartu du. Eta, horrez gain, zenbait abesbatzatak zuzendaria izan da Valentziako Erkidegoan. 2010ean, Valentziako Unibertsitate Katolikoan, Valentziako Erlijio Ondare Musikala Berreskuratu eta hartako Transkripzioen diploma lortu zuen.

Bere ahotsaren moldakortasunak ahalbidetzen dio, gainera, estilo desberdinak hartzea, dela Erdi Aroko musika, dela musika, dela Valentziako *cant d'estil*.



Èlia Casanova & Alfred Fernández



Quién te traxo el caballero

Irailak 9 —17:30
SANTA KLARA KOMENTUA

Èlia Casanova, sopranoa
Alfred Fernández, Errenazimenduko lautea

Musika-testuren soiltasun zoragarriak eta gardentasun argitasun ikaragarriko testuak izango dituzte lagun. Musika bereziko bilduma hauen gainean misterioa behatzen da. Nor ziren halako maila artistiko handia zuten sortzaile izengabe hauek? Èlia Casanova belusezko ahotsa duen sopranoak, Alfred Fernández vihuela-jotzailea lagun hartuta, jelsia, maitasun-, heriotza- eta itxaropen-mundu batean murgilduko gaitu.

PROGRAMA

*Con mi dolor
y tormento*
Izengabea (XVI. m.)

Fantasia
Francesco
da Milano
(1497 - 1543)

*De vos y de mí
quexoso*
Izengabea - Juan
del Enzina
(1468 - ca. 1530)

*Por unos puertos
arriba*
Antonio Ribera
(fl. 1500)
- Juan del Enzina

*La não podeis ser
contentes*
Izengabea (XVI. m.)

*De vos, e de
mim naceo*
Izengabea (XVI. m.)

*Porque me não
ves loãna*
Izengabea (XVI. m.)

Cuatro fantasías
Francesco
da Milano

*Testou minba
ventura*
Izengabea (XVI. m.)

Venid a sospirar
Izengabea (XVI. m.)

*No piensen que
á d'acabar*
Izengabea (XVI. m.)

*Ia que viveis
tão ausentes*
Izengabea (XVI. m.)

Soneto
Enríquez
de Valderrábano
(ca. 1500 - ca. 1557)

Pleni sunt
Enríquez
de Valderrábano

*Se do mal que
me quereis*
Izengabea (XVI. m.)

Tres fantasías
Luís de Narváez

*Bendito sea
aqueel día*
Izengabea (XVI. m.)

*Quien te traxo
el cavallero*
Juan del Enzina

Soneto
Enríquez
de Valderrábano

*Lo que queda
es lo seguro*
Izengabea (XVI. m.)

Èlia Casanova

●●● Valentziako Musikako Goi Mailako Kontserbatorioko kantuko goi-mailako titulua du, Consol Ricoren tutoretzapean. Gero, antzinako musikako ikasketak hobetu zituen Birminghamgo Kontserbatorioan, Ingalaterran, Andrew King tenor ospetsuarekin, eta hiri horretako Oratorioko eta Antzinako Musikako abeslari onenaren sariak irabazi zituen. 2014an, Gijongo Antzinako Musikako Nazioarteko Jaialdian, kantuko lehiaketako lehen saria eskuratu zuen. Besteak beste, Richard Levitt, Eduardo López Banzo, Maria Grazia Schiavo, Lambert Climent, Manuel Cid, Robert Expert eta Helena Lazarskaren eskolak hartu ditu, eta Jordi Savall, Eduardo López Banzo, Fabio Biondi, Patrick Fournillier, Lluís Vilamajor, Francesc Prat, Cristóbal Soler, Juan Luis Martínez eta Jaron Traub zuzendariekin egin du lan adibidez.

Solista arituta Espainia osoan, Portugalen, Frantzia, Italian eta Txekiar Errepublikan egin ditu emanaldiak, esate baterako Capella de Ministrers, Harmonia del Parnás, la Capella Reial de Catalunya, Montsalvat abesbatza, L'Arcadia eta Alamire duoa taldeekin batera. Hainbat jaialditan parte hartu du, adibidez: Festival de Música Antigua de Peñíscola, Festival de Órgano Histórico de León, Festival de Música Antigua de Gijón, Gois Oros Arte, Ciclo de Música

de Cámara y Valenciana Vicent Garcés de Faura, Festival Los Lunes Concierto de Castellón, Feslida. Askotan kolaboratzen du antzinako musikako Amystis Coro de Cámara eta Victoria Musicae taldeekin, eta Valentziako erreperitorio barroko grabazio batzuk egin ditu.

Abesbatzako kide moduan, Coral Catedralicia de Valencia, Cor de la Generalitat Valenciana eta Coro de RTVE'n parte hartu du. Eta, horrez gain, zenbait abesbatzako zuzendaria izan da Valentziako Erkidegoan. 2010ean, Valentziako Unibertsitate Katolikoan, Valentziako Erlijio Ondare Musikala Berreskuratu eta hartako Transkripzioen diploma lortu zuen.

Bere ahotsaren moldakortasunak ahalbidetzen dio, gainera, estilo desberdinak hartzea, dela Erdi Aroko musika, dela musikala, dela Valentziako *cant d'estil*.



Alfred Fernández

●●● 1970ean jaio zen, Bartzelonan. Gitarra klasikoko ikasketak egin zituen Jordi Codina, Manel González eta Fernando Rodríguezekin. Gero, hari pultsatuko antzinako instrumentuetan espezializatu zen: bihuela, gitarra barrokoa, lautea... Heziketaz autodidakta, maisu ospetsuen aholkuak jaso ditu, hala nola William Waters, Rolf Lislevand, Paul O'dette eta John Griffithsenak. Egun, hiru disko ditu editatuta bakarlari moduan. Lan horiek kritika bikainak izan dituzte aldizkari espezializatuetan, adibidez, Répertoire, Le Monde de la Musique, Gramophone, Goldberg, Scherzo, Ritmo, Lute Society Magazine eta abarretan. Solista moduan kalera-tuta duen azken albumak Répertoire aldizkariaren «10R» saria jaso du, eta bai kalifikazio gorenak ere beste zenbait aldizkaritan. Bakarlari aritu da Espainian, Holandan, Frantzia, Alemanian, Ameriketako Estatu Batuetan, Belgikan, Grezian, Marokon, Brasilen eta Italian. Bihuela- eta laute-errezitaldiak egin ditu antzinako musikako eta gitarrako jaialdi entzutetsuetan, adibidez, Laus Polyphoniae (AMUZ, Anberes, 2012), Oude Muziek Utrecht (Utrecht, 2008), MA Brugge (Brujas, 2000), Lauteko Nazioarteko Jaialdia (Füssen, Alemania, 2010 eta Utrecht, Holanda, 2013), Guitarrísimo jaialdia (Munich), Guitarrísimo jaialdia (São Paulo), Festival de Música Antigua de Úbeda y Baeza (2008 eta 2012) jaialdietan. El canto del caballero taldeko zuzendarikidea da. Talde hori Iberiar penintsulako Errenazimenduko musikan espezialista da, eta Portugal, Holanda, Belgika, Austria eta Alemanian aritu da kontzertuak ematen.

Vox Hvmana



Hermosas alamedas

Irailak 9 —20:00
SAN MIGEL ELIZA

Juan Corcuera, zuzendaritza

Verónica Plata, sopranoa
Jorge Enrique García Ortega, altua
Juan Díaz de Corcuera Herrador, tenorra eta zuzendaritza
Manuel Vilas, bi ordenako harpa
Jesús Fernández Baena, tiorba

Madriren, 1620an, Prado de San Jerónimon, gizarte-maila desberdineko pertsonen joera sortzen zuten musika partekatzean, edo beraiek jota edo musikariak kontratatuta gau-jaialdiak alaitzeko. Vox Hvmana taldeko hiru ahotsek, baxu jarraituaren ozentasun oso apainduarekin batera, bidaia batera gonbidatuko gaituzte, Felipe III.aren erreinaldiko giza tonuen azken joeren bidez.

PROGRAMA

Hermosas alamedas

Estantzia, Lope de Vega (1562 - 1632)

Izengabea (ex. XVI. m. in. XVII. m.)

Al bumilde Mançanares

Erromantzea, Lope de Vega (1562 - 1632)

Izengabea (ex. XVI. m. in. XVII. m.)

El tardo buey atado a la coyunda

Sonetoa, Tirso de Molinari egotzia (1579 - 1648)

Juan Fernández Garzón, (fl. 1591 - 1615)

Ojos negros de mis ojos

Erromantzea, Lope de Vegari egotzia (1562 - 1632)

Diego Gómez de la Cruz (c. 1550 - 1618)

Galería de Amor y su Baylete

Lucas Ruiz de Ribayaz (1626 - post 1677)

La verde primavera

Abestia, Lope de Vega (1562 - 1632)

Izengabea (ex. XVI. m. in. XVII. m.)

Ya con la salud de Flori

Erromantzea, Luis Carrillo de Sotomayor (c. 1585 - 1610)

Francisco Compañi (fl. 1600)

Siete años de pastor Jacob servía

Sonetoa, Luís Vaz de Camões (c. 1524 - 1580)

Izengabea (ex. XVI. m. in. XVII. m.)

Ojos si queréis vivir

Letra, izengabea (ex. XVI. m. in. XVII. m.)

Izengabea (ex. XVI. m. in. XVII. m.)

Gran Duque y su Baylete

Lucas Ruiz de Ribayaz (1626 - post 1677)

En el campo florido

Lirak, Lope de Vega (1562 - 1632)

Juan de Palomares (¿? - c. 1596)

La morena graciosa

Letra, izengabea (ex. XVI. m. in. XVII. m.)

Izengabea (ex. XVI. m. in. XVII. m.)

Si por Rachel gentil zagala bella

Sonetoa, Conde de Salinas (1564 - 1630)

Izengabea (ex. XVI. m. in. XVII. m.)

Durmiose Cupido al son

Letra, izengabea (ex. XVI. m. in. XVII. m.)

Izengabea (ex. XVI. m. in. XVII. m.)



Vox Hvmana

●●● Vox Hvmana ahots-talde bat da, XV. eta XVII. mendeen arteko polifoniaren interpretazio historikoki dokumentatuan espezialista. Suitzako Basilea hirian sortu zuten, 2007an, Andrea Marcon italiar zuzendariaren ekimenez. Kantari-kopurua aldakorra da, programa bakoitzaren beharretara egokitzen baita, eta, hartara, formatu txikiko eta handiko programei ekin diezaieke.

Jorratzen dituen errepertorioen testuiguru historikoaren eta haiekin lotutako jardunbideen ikerketa-prozesu sakon batean oinarritzen du lana. Arreta errepertorio polifonikoan jartzen du, bai erlijioako eta bai profanoan ere, Urrezko Mendeko iberiar kaperetan ekoitzian eta joan.

Besteak beste, jaialdi hauetan aurkeztu da: Ciclo de Música Sacra en las Catedrales Españolas (Teruel, Calatayud, Logroño, Iruñea eta Guadalajara), BSI Engadin Festival, (Müstair, Suitza), Bachfest, (Leipzig, Alemania) eta Nafarroako Organorako Musika Zikloa (Iruñea).

Sortu zenetik, Vox Hvmana Juan Díaz de Corcuera Herradorrek zuzentzen du.

Juan Díaz de Corcuera Herrador

●●● Abeslari, ikertzaile eta zuzendari espainiarra, interpretazio historikoki dokumentatua espezializatua. Prestakuntza Abadía de la Santa Cruzeko eskolanean haur kantari moduan hasi zuen. Gero, Iruñera lekualdatu zen, ahots-arloko prestakuntza jarraitu zuen Pablo Sarasate kontserbatorioan eta aldi berean hiriko zenbait abesbatzarekin kolaboratzen aritu zen, besteak beste, Iruñeko Katedralako Musika Kaperarekin. Interpretazio historikoki dokumentatuaren hastapenak Salamancako Unibertsitateko Antzinako Musikako Akademian egin zituen. Ikastaro espezializatu eta eskola magistraletara joan zen hainbat irakaslearekin, hala nola Carlos Mena, Marta Almajano, Montserrat Figueras, Maria Cristina Kiehr eta Richard Levittekin. Prestakuntza Schola Cantorum Basiliensis (Basilea, Suitza) amaitu zuen, Gerd Türk tenorarekin, eta Diplom für alte Musik lortu zuen 2006an. Prestakuntza hartu bitartean, Urrezko Mendeko iberiar egileen errepertorio polifonikoan espezializatu zen.

2000. urtean, La Trulla de Bozes taldearekin batera, XXXVII Festival van Vlaanderen – Brugge antzinako musikako lehiaketan lehen saria lortu zuen eta bai International Young Artist Presentation saria ere Laus Polifonae, Festival Van Vlaanderen – Antwerpen lehiaketan. Besteak beste, jaialdi hauetan parte hartu du: Oude Muziek Amnsterdam, Festival de Granada, Los Siglos de Oro, Laus Polyphoniae, Semana de



Música Religiosa de Cuenca, Bachfest Leipzig, Alte Musik Zürich, eta abar. Zenbait taldetan aritzen da kolaboratzen, adibidez, La Trulla de Bozes, Resonet, Capella Reial de Catalunya, Chant 1450 eta Capella Prolationum taldeetan, eta haiekin zenbait grabazio diskografiko egin ditu.

Interpretatzaile lanarekin batera, ikertzaile lana egin du eta hainbat ekitalditan parte hartu du, adibidez, «Plus Oultre» nazioarteko sinposioan, Alte Musik Zürich jaialdiak antolatuta, Musikwissenschaftliches Institut Zurich (Suitza), «Realidades ficticias» hitzaldien zikloan, Biblioteca Luis Angel Aragon (Bogota, Kolonbia) eta «Visiones del Sacrificio» sinposioan, MAMUn (Bogota, Kolonbia).

2013 eta 2018 artean, irakasle elkartu lanean aritu zen Universidad Centralen (Bogota, Kolonbia), eta irakasgai teoriko batzuk eman zituen erakunde horretako Musika Ikasketetako Maisutzako Enfasia Interpretazio Historikoan arloan.



Irailak 10

Las Arpas Sonoras



Tañendo con voz sonora

Irailak 10 —17:30

SANTA KLARA KOMENTUA

Laura Puerto, bi ordenako harpa iberiarrak
Manuel Vilas, bi ordenako harpa iberiarrak

Errenazimenduko gau-jaialdi honetan, Laura Puerto eta Manuel Vilas harpa-jotzaile entzutetsuek, zenbait menderen ondoren, bi ordenako harpa iberiarrak erabiltzen, errepertorio hau birsortuko dute, moldaketak eginez eta ahots- eta instrumentu-errepertorioaren gainean interpretazio-bide berriak bilatuz. Sonoritate bakana, gozoa eta arras erakargarria.



PROGRAMA

<i>Tu pauperum refugium (4vv)</i>	Josquin des Prez (c. 1450/1455 - 1521)
<i>Ave María (4vv)</i>	Francisco Guerrero (1528 - 1599)
<i>Ancol que col partire. Rore</i>	Antonio de Cabezón (1510 - 1566)
<i>Sicut cervus (4vv)</i>	Giovanni Pierluigi da Palestrina (1525 - 1594)
<i>Tiento</i>	Julius de Módena (1498 - 1561)
<i>Magnificat de quinto tono (4vv)</i> Magnificat Anima mea	Hernando Franco (1532 - 1585)
<i>Tiento del cuarto tono</i> Diferentia Canto del Caballeroren gainean, Gombert	Antonio de Cabezón
<i>Tiento sobre «Con qué la lavaré»</i>	Antonio Carreira (†1593)
<i>Tiento</i>	Heliodoro de Paiva (XVI. mendea)
<i>Conditor alme</i>	Gracia Baptista (XVI. mendea)
<i>De los álamos vengo (4vv)</i>	Juan Vásquez (XVI. mendea)

Las Arpas Sonoras

●●● Laura Puertok masterra du Antzinako Musikaren Interpretazioan ESMUC/ Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Klabe goi-mailako titulua eskuratu zuen, eta gero bi ordenako harpa iberiarra interpretatzen espezializatu zen Nuria Llopisekin. Gero eta handiagoa den lana egiten ari da musika-tresna hori eta bere erreperorioa ikertu eta jotzeko, eta bai harparen eta teklaturako instrumentuen arteko interrelazioa ere aztertzeko interpretazio-irizpideetan Espainiako Errenazimenduan. Klabe goi Mailako Kontserbatorioan. Kontzertuen arloan izan duen jarduera biziak Espainian, Portugalen, Ameriketako Estatu Batuetan, Mexikon, Venezuelan, Brasilen, Turkian, Polonian, Alemanian, Italian, Frantzian eta Serbian ibiltzera eraman du.

Eskuarki kolaboratzen aritzen den taldeen artean hauek daude: Vocal Ensemble, La Bellemont, Hippocampus, La Folía, La Dispersione, Estil Concertant, Los Afectos Diversos, Un Cavalier di Spagna, La Reverencia, Compañía Teatro del Príncipe eta Ensemble Sopra Il Basso.

Gainera, klabezin-jotzaile laguntzaile moduan parte hartu du nazioarteko ikastaro ospetsuetan, besteak beste, Jordi Savall, Montserrat Figueras, Pierre Hamon, Manfred Kraemer, Evelyn Tubb, Charles Brett, Sabine d'Hont eta Ruth Holton musikariek. Grabazio diskografiko ugari egin du, telebista eta irrati, eta *La Voix de la Viole* eta *Plaisir Sacré* CDak nabarmendu behar dira, La Bellemont bere taldearekin grabatuak, eta Antonio Cabezónen abesti glosatuei eskainietako eta solista moduan egindako grabazio bat, *Ultimi miei Sospiri*.

●●● Manuel Vilas XII. eta XVIII. mendeen arteko antzinako harpak ikasi zituen Madrilén, Nuria Llopisekin, eta Milanen, Mara Galassirekin. Talde askorekin aritu da elkarlanean, adibidez, Les Musiciens du Louvre, Al Ayre Español, Capilla Jerónimo de Carrión, Musica Ficta, Capella de Ministrers, Ensemble Elyma, Camerata Iberia, La Hispanoflomenca, Raquel Andueza & La Galanía, Ars Longa, La Trulla de Bozes, Orquesta Barroca de Sevilla, Coro Nacional de España, Ensemble La Chimera, Armonía del Parnás eta abarrek, Espainia, Alemania, Kuba, AEB, Ekuador, Txekiar Errepublika, Paraguai, Austria, Portugal, Suitza, Frantzia, Italia, Bolivia, Belgika, Argentina, Txile, Holanda eta abarretako jaialdi garrantzitsuetan. Halaber, kontzertuak ematen ditu bakarlari moduan, Espainiako, Ameriketako eta Italiako musika barrokoan ardaztuta dauden programekin, eta bai hitzaldiak eta ikastaroak ere, hainbat herrialdetan. Manuscrito Guerra (XVII. mendea) izeneko eskuizkribuko ehun tonuak grabatzeko proiektuaren zuzendari artistikoa da, eta haren grabazio osoa Naxos diskografikak kaleratu du, sei disko konpaktutan.

Duela gutxi, Harpako IV. Mundu Jaialdian Espainia ordezkatzeko gonbidatu zuten, Asunción hirian, Paraguan, eta herrialde horretan bi ordenako harpako erreztaldia eskaini zuen lehen harpalaria izan zen.



Lina Tur Bonet & MUSIca ALcheMIca



La belleza

Irailak 10 —20:00
SAN MIGEL ELIZA

Dani Espasa, klabea
Pavel Amílcar, biolina
Jesús Fernández Baena, tiorba
Oriol Aymat, biolontxelo edo viola
da gamba
Lina Tur Bonet, biolina eta zuzendaritza

Stylus fantasticus eta lehen barrokoko askotariko lanak hartzen ditu barne programa honek, foliak, kalejirak eta txakonak bilduz, beren sinbolismoekin eta soinuekin, entzulea harritu eta liluratzea helburu duten beste bizarrie batzuekin batera. Beste instrumentu batzuen imitazioak, beste modu batera afinatutako biolinen scordature, Dionisoren musikaren forma duten erokeriak... Soinuen erabateko oparotasuna zentzumenetarako, esferetako musikarekin arima hunkitu eta giza pasioak nabarmendu nahi ziren garai batean.

PROGRAMA

Sonata Seconda, 1610
Gian Paolo Cima (1570 - 1622)

Sonata Decima per due soprano
Dario Castello (1590 - 1630)

Sonata sopra la Monica
Biagio Marini (1594 - 1663)

Sonata V in sol minore, aus Harmonia Artificiosa-Ariosa
Heinrich Ignaz Franz von Biber (1644 - 1704)

Sonata Quarta
Johann Heinrich Schmelzer (1620 - 1680)

Aria sopra La Bergamasca
Marco Uccellini (1603? - 1680)

Imitazione dil liuto, 1694
J.P. von Westhoff (1656 - 1705)

Passacaglia degli Affetti Musicali
Biagio Marini (1594 - 1663)

Follias echa para mi Señora Doña Tarolilla de Carallenos
Andrea Falconiero (1586 - 1656)



MUSIca ALcheMIca

●●● MUSIca ALcheMIcaren grabazioak Corelliren V. opusaren bertsio onena moduan aukeratu zituen BBCK, «Biberren Errosarioaren sonata erreferentzial» mo-

duan Gramophone aldizkariak, «Vivaldi eta Pisendel argitaragabe gomendatuak» Bayerische Rundfunk aldizkariak, SWRk eta Kulturradio Berlinek, 5* DIAPASON zenbait alditan... Horrek Europa osoan aritzera eraman du taldea (Early Music Sant Petersburg, Potsdamer Festival), Hego

Amerikan eta Tokion, zuzenean grabatuz Austriako ORFrako eta Japoniako NHK telebistarako, Asia osoan emanez. Era berean, Vivaldi, Pisendel, Matteis eta Espainiako klasizismoko musikagileen musika argitaragabea berreskuratu du.

Nazioarteko prentsak honela definitu izan du Lina Tur Bonet: «*Fierly virtuoso*» (The Strad), «Deabruaren benetako biolinista» (Bayerische Rundfunk), «sekulakoa» (Gramophone), «egundoko biolinista» (Scherzo), «*superbement joué, flamboyante Lina*» (Diapason), «*the small wonder, Lina Tur Bonet shines*» (SD Union Tribune), «jazzlariak edo operako divak bezala, liluratu egiten du bere ornametazio guztiz biziarekin» (Kommersant, Errusia) eta «arimaren biolinista» (Sankei Shinbun), besteak beste. **Lina Tur Bonet** mundu osoan dabil solista eta zuzendari lanak egiten, eta Wigmore Hall, Styriarte, MB1800 NYC, Concertgebouw Amsterdam, Musashino Hall Tokyo, Montréal Baroque, Israel eta Varna Festivalen aritu da, eta ganberako musikari lanak Musikverein eta Konzerthausen, Vienan. Abbado, Harding eta Gardinerren zuzendaritzapean aritu izan da, eta ganberako musikan agertokia partekatu du Christian Zacharias, Menahem Pressler eta Enrico Onofriekin.

●●● **MUSICA ALcheMica** Lina Tur Bonet biolin-jotzaileak Vienan egin zuen egonaldian sortutako taldea da, eta Vila Musica Mainz eta Potsdamgo jaialdian egin zuen debuta, Haendelen Alessandro operarekin, Alan Curtisek zuzenduta.

Bere grabazio sarituei esker, mundu osoan aitortutako taldea da egun, eta bere jarduna Europa, Amerika eta Asia artean banatzen da. Mundu osoko lehen mailako musikariak ditu beti, eta garai guztietako

musikak jotzeko ideiatik sortu zen, eta bai diziplina anitzeko proiektuak eta proiektu pedagogikoak jorratzeko ideiatik ere.

Era berean, Legrenzi, Biber, Bach eta Haendelen musika grabatu du Austriako ORF irratiarako, eta zuzenean grabatu dute RTVEk eta Japoniako NHK telebistak, mundu osoan emateko. Taldearen erregistro diskografikoek barne hartzen dituzte Pan Classicserako bost disko sarituak.

MUSICA ALcheMican nazioarteko interpretatzaile handiak aritzen dira, hala nola Marco Testori, Kenneth Weiss, Mauro Valli, Alexis Kossenko, Andy Ackerman, Giangiacomo Pinardi, Marco Ceccato eta Dani Espasa.

Diziplina anitzeko alderdian, MUSICA ALcheMikak Antonio Colinas poetarekin kolaboratu du *La Tumba negra* lanean (omenealdia J.S. Bachi), Ángel Haro artistarekin *Folia* lanean, egonaldi artistikoan Párraga zentroan, eta museo eta kulturgune garantzitsuetan aritu da, adibidez, MuVIM, Madrilgo Matadero eta MACEn. Bertan, MUSICA ALcheMikak ikus-entzunezko teknikak bateratzen ditu bere musikarekin, bideo-artistekin, margolariekin, zinematigileekin, aktoreekin, urreginekin eta txo-txongiloekin elkarlanean arituz. Halaber, nazioarteko heziketa-proiektuetan esku hartu du Panaman eta Bolivian, eskola magistralak ematen eta agertokia partekatzen musikari gazteekin.

MUSICA ALcheMikaren bideoek estimu handia eragiten dute, beren izaera artistiko eta berritzailearengatik. Azkena, Corelliren *Follia* lanarekin, Erroman, Londresen eta RTVEen aurkeztu dute eta arrakasta handia izan du.



Irailak 11

Manuel Horno & L'Apothéose



Elkarriketan jardundako preludioak

Irailak 11 — 18:00

JULIÁN ROMANO MUSIKA
ESKOLAKO AUDITORIUMA

Manuel Horno musikologoa moderatzailea izango da musika barrokoko L'Apothéose taldearekin egingo den mintzaldi honetan. Taldearen ibilbidearen inguruko solasaldia izango da, errepertorioa nola aukeratzen duten azalduko dute, ganberako musikarena bezain konplexua den mundu batean bidea nola urratu duten, eta arlo profesionalean ibilbidea hasten hasi diren interpretatzaileentzako aholkuak emango dituzte.

Manuel Horno

●●● Manuel Horno Iruñean jaio zen. Hamar urte zituenean, Pablo Sarasate Kontserbatorioan hasi zen eta piano-, biolontxelo- eta klabe-ikasketak egin zituen. 1995ean Musikologiako lizentzia eskuratu zuen Salamancako Unibertsitatean, eta gero musika-dibulgazioko ikastaroak eta mintzaldiak egiten hasi zen helduentzat. Función Culturalek, Nafarroako Aurrezki Kutxaren bidez, antolatutako musika-ikastaroetan txostengilea izan da, NUPeko Aulexnak antolatutakoetan, Deustuko Unibertsitateko Deusto Bide programan eta Bilboko Elkarre Filarmonikoan, eta bai zenbait kultura-erakunderen txostengile gonbidatua ere, besteak beste, Iruñeko Gayarre Antzokia edo Nafar Ateneoarena. 1998az geroztik, Lizarrako Antzinako Musikaren Asteari lotuta dago, txostengile moduan, ikus-entzuleekin topaketak egiteko formatu desberdinetan (mintzaldiak, ikastaroak, kontzertuen aurkezpenak). 2019an, *Stella Splendens* aurkeztean parte hartu zuen, Lizarrako Antzinako Musikaren Astearen 50. urteurrenaren oroitzapena egiteko liburua, jaialdiaren programazioaren bilakaera aztertzen duen kapitulu bat eginez. Ibilbide profesionalean irakaskuntzan eta antzerkian aritu da, eta, egun, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean Kultura Ku-deaketako Masterra egin eta gero, bizi den udalerriko kultura-teknikaria da.



L'Apothéose



A Tribute to Tears

Irailak 11 — 20:00
SAN MIGEL ELIZA

Laura Quesada, trabersoa
Victor Martínez, biolina
Carla Sanfélix, biolontxelo
Asís Márquez, klabea

Georg Friedrich Haendelen lanen gainean Madrilgo talde gazte eta ohiz kanpoko honek egiten dituen interpretazioek hiru urte eskaseko ibilbide profesionalean nazioarteko hamabi sari lortzea ekarri diote. Taldearen bikaintasuna, konpromisoa, zintzotasuna, birtuosismoa eta dotoretasuna goraiatzeko dute.

PROGRAMA

«A tribute to tears»
Georg Friedrich Händel (1685 - 1759)
Obras instrumentales

No. 1 sonataren trioa, Op. 5 la maiorren, HWV 396
Andante – Allegro – Larghetto – Allegro
– Gavotte

Biolinerako sonata, re menorren, HWV 359a
Grave – Allegro – Adagio – Allegro

No. 2 sonataren trioa, Op. 5 re maiorren, HWV 397
Adagio – Allegro – Musette (Andante – Allegro – Andante) – Marche – Gavotte

Biolinerako sonata re maiorren, HWV 371
(trabersorako moldaketa)
Affettuoso – Allegro – Larghetto – Allegro

No. 1 sonataren trioa, Op. 2 si menorren, HWV 386b
Andante – Allegro ma non troppo – Largo – Allegro

No. 4 sonataren trioa, Op. 2 fa maiorren, HWV 389
Larghetto – Allegro – Adagio – Allegro – Allegro



L'Apothéose

●●● L'Apothéose 2017an sortu zen, taldekideen ospakizun-, gogoeta- eta esperimentazio-gune gisa. Hasieratik bertatik, taldearen helburu nagusia interpretazio historikoa maila altuenera eramatea izan da, musikagile bakoitzaren beraren eduki emozionala eta erretorikoa entzuleari helarazteko irizpide argi bat erakutsiz beti.

François Couperinen L'Apothéose de Corelli lanaren izenburuan ideia hartuta jarri zioten izena taldeari, eta, hartara, lan hori taldekideen lehen musika-proiektua izan zen eta bai musika-ibilbide emankor baten abiaburua ere. Kritikariek eta publikoak txalokatuak, beren proiektu guztien oinarri egonkor moduan laukoteko formatua aintzat hartuta, beren interpretazioen koloreak eta eduki erretoriko moldakorrak, eta, bereziki, etengabeko kalitatea eta elkarrekin egiten duten lanaren erregulartasuna

kontuan hartuta, egun Espainiako interpretazio historikoan erreferentziatzko taldetzat jotzen da.

Azken urteetan, nazioan eta nazioartean hamabi sari lortu ditu, eta parte hartu duen lehiaketa guztietan sariak eskuratu ditu beti. Haien artean hauek nabarmendu behar dira: lehen saria 2019an York Early Music International Young Artists Competitionen (Erresuma Batua), lehen saria 2017an Göttingen Händel Competitionen (Alemania), bigarren saria 2018an Internationaal Van Wassenaer Competition ospetsuan, Oude Muziek jaialdiaren barnean, Utrecht (Herbehereak) eta bigarren saria 2017an Concours International de Musique Ancienne de Val de Loiren (Frantzia), William Christie buru zuela.



Irailak 12

Secretvm



Col bel chiaro de sta luna

Irailak 12 —17:30
SANTA KLARA KOMENTUA

Sergio Barcellona, zuzendaritza

Jone Martínez, kantua
Íñigo Casali, kantua, txirula eztiak
Sergio Barcellona, viola *da gamba*
Jesús Fernández Baena, tiorba
Charo Indart, klabea

Abestien, serenaten eta gondola-abestien —haietako asko argitaragabeak— programa honen bidez, Secretvm taldeak, Jone Martínez eta Íñigo Casaliaren ahots ederrarekin, musika-ibilbidea egingo du ia desagertuta dagoen musika-genero batean, baina arrazoiz jo ahal izango litzatekeena pop musikaren ante litteram adibidetzat, barrokoko Veneziako soinu-paisaiaren zati baitzen, kanaletan zehar gauetan entzuten zena, inauterietan edo ilargi-argitan interpretatzen ziren serenatetan.

PROGRAMA

<i>Donna che loda il canto di bellissimo giovinetto</i> <i>Le rugiadie</i>	Biagio Marini (1594 - 1663)
<i>La Foscari (sonata a tre)</i>	Giovanni Legrenzi (1626 - 1690)
<i>Ed è pur dunque vero</i> <i>Voglio di vita uscir (ciaccona)</i>	Claudio Monteverdi (1567 - 1643)
<i>Col bel chiaro de sta luna</i>	Venetian Ballads (Londres, 1742)
<i>Dal lambico del to amor</i>	Izengabea (Canzonete a la Venetiana, 1710)
<i>Sento che'l cor me manca</i>	Izengabea (Venezia, 1739)
<i>Mi credeva d'esser sola</i>	Izengabea (Venezia, 1741)
<i>Ciaccona per flauto e b.c.</i>	Benedetto Marcello (1686 - 1739)
<i>Per mi aver Cattina amor</i>	Izengabea (Venezia, 1740)
<i>Sì, la gondola averé</i>	Izengabea [Gaetano Latilla (1711 - 1788)]
<i>Largo del Concierto RV 548</i> [Txirula, tiorba eta B.C.rako moldaketa]	Antonio Vivaldi (1678 - 1741)
<i>La biondina e la sua risposta</i> Antonio Lamberti (1757-1832) eta Marina Queriniren testuak (1757 - 1839)	Johann Simon Mayr? (1763 - 1845)



Secretvm

●●● Secretvm 2013an jaio zen, Nafarroan, Ensemble Durendal talde deseginararen ekimenez (1998az geroztik ziklo eta jaialdi ugaritan aritua: Donostiako Musika Hamabostaldia, Ciclo de Música Sacra de Burgos, Festival del Camino de Santiago, Festival Internacional de Granada, Festival Internacional de Música Antigua de Málaga, Festival de Música de Compostela, beateak beste). Taldea eratu zenetik, Secretvm kideek antzinako musikako talde ospetsuekin kolaboratzen jarraitzen dute (Durendal, Los Músicos de Su Alteza, Raquel Andueza & La Galanía, Conserito Vago, Lachrimae Consort, Capella de Ministrers, eta abar), eta ikerketa-lana asko landu gabeko edo argitaratu gabeko errepertorioen musika-zabalkundearekin bateratzea erabaki zuten. Beren lehen proiektua *Salga la luna* diskoa grabatzea izan zen, Juan Vásquezaren sonetoei eta bilantzikoei eskainia (Binario, 2014). Duela gutxi, taldeak erakustaldia egin du Vicenzan, Italian, XVIII. mendeko veneziar abesti argitaragabe batzuen programa aurkezteko, eta haietako batzuk lehenbiziko aldiz joko dira Espainian kontzertu honetan.

Sergio Barcellona

●●● Sergio Barcellonak viola da gamba ikasi zuen Milanen (Civica Scuola di Musica) eta Parisen, eta azken horretan Premier Prix saria lortu zuen 1997an (Conservatoire Charles Munch). Elkarlanean aritu da Accademia Strumentale Italiana, Conserito Vago (Italia) eta Lachrimae Consortekin (Frantzia), eta haiekin, era berean, zenbait grabazio diskografiko egin du (Mandala, Amadeus, Lyrynx). *Cum laude* lizentzia lortu zuen Discipline della Musica Bologniako Unibertsitatean, eta doktorea da, nazioarteko aipamenarekin, Kantabriako Unibertsitatean (2018). Jardun artistikoa musikaren irakasten eta ikertzen arirezarekin txandakatzen du.



Nafarroako Orkestra Sinfonikoa



Armonico Tributo

Irailak 12 — 20:00

LOS LLANOS KULTURGUNEKO
LORATEGIAK

Yorrick Troman, concertino zuzendaria

Astea amaitzeko kontzertuan ezin zitekeen falta Espainiako orkestren artean jardunean den talde zaharrena, Corelli, Biber, Locatelli eta Muffaten programa sutsu batekin. Orkestrako hari-atalak argitasunez, birtuosismoz, adierazkortasunez eta sentiberatasunez betetako hizkuntzak eta elkarriketak esploratuko ditu. Edertasun hutsa.

PROGRAMA

Concerto Grosso Op. 6 No. 4
Arcangelo Corelli (1653 - 1713)

Battalia à 10 (1673)
Heinrich Ignaz Franz von Biber
(1644 - 1704)

Concerto Grosso Op. 1 No. 11 do menorren
Pietro Antonio Locatelli (1695 - 1764)

Armonico Tributo, Sonata No. 5
Georg Muffat (1653 - 1704)



Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

●●● Pablo Sarasatek sortua 1879an, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa jardunean dagoen Espainiako orkestra zaharrena da. Egun, Baluarte Fundazioaren barnean dago, nagusiki Nafarroako Gobernuak finantzatzeko duen erakunde batean, eta, horrenbestez, Foru Komunitateko orkestra ofiziala da. Orkestraren ehun eta berrogei urteko historian, Nafarroako Sinfonikoa auditorium, opera-denboraldi eta jaialdi nagusietan aritu izan da, bai Espainian eta bai atzerrian ere. Bereziki garrantzitsuak izan dira Parisko Théâtre des Champs Élysées eta Théâtre du Châtelet antzokietan eskaini dituen kontzertuak, bai eta Universal Music etxeak Europako auditorium

garrantzitsuenetan barna antolatutako bira ere. Nazioarteko kritikak aho batez goraiatu du Sarasateren lan osoaren grabazioa Naxos etxerako Tianwa Yang biolinistarekin batera. Era berean Naxosekin, grabazioen programa bat egin du, Antoni Wit zuzendariarekin. Orkestrak kontzertuz betetako denboraldia eskaintzen dio urtero Nafarroako publikoari Iruñean (Baluarte auditoriumean) eta Tuteran (Gaztambide antzokian), eta, horrez gain, gizarte- eta hezkuntza-jarduera zabala egiten du Nafarroa osoan. Manuel Hernández Silva da zuzendari titularra eta artistikoa 2018-2019 denboraldiaz geroztik.



SM/DE

ANTOLATZAILEAK / ORGANIZA



LAGUNTZAILEAK / COLABORA



IGLESIA DE SAN MIGUEL
CONVENTO DE SANTA CLARA

KIDEA / MIEMBRO



www.smade.es
www.culturanaavarra.es

